

DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

► Ayuntamiento Pleno

► Akta

Acta

UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL

2011eko AZAROAK 28 / 28 - NOVIEMBRE - 2011

TOKIA / LUGAR: SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

EGUNA / FECHA: 28/11/2011

HASIERA / INICIO: 18:00 horas

BERTARATUAK / ASISTENTES:

PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):

Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):

1. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia
2. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón
3. Alkateordea, Don Andoni Iruarizaga Amantegi
4. Alkateordea, Don Ander Gorrotxategi Legarra
5. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra
6. Alkateordea, Don Jon Kepa Garro Mendiola garai
Don Juan Ignacio Martínez Orea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (BILDU)

Don Urdaspal Bolinaga Mallaviabarrena
Doña Arrate Elgoro Zengotitabengoa
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu
Doña Eider Uribe Padilla
Don Pedro Roberto Frontaura Basterra
Doña Deunorone Bizkarra Larrea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))

Doña Pilar Ríos Ramos
Don Fernando Castillo Rodríguez
Doña Idoia Agorriá Martínez

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PP)

Don Juan José Gastañazatorre Urizar
Don Adrian Castro Cebrian

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (ARALAR)

Don Daniel Maeztu Pérez
Don Iker Urkiza Quilez

KONTU-HARTZAILE ORDEA / INTERVENTORA EN FUNCIONES

Doña Maria Pilar Velasco Pérez


IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Don Ramón Sorarrain Tolosa

IZAERA / NATURALEZA: EZ OHIKOA / EXTRAORDINARIA

DEIALDIA / CONVOCATORIA: LEHENA / PRIMERA

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 18:00 horas, se pasó a tratar el único tema que compone el Orden del Día de la presente sesión y que es el siguiente:



UNICO.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA EL EJERCICIO 2012. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN ESPECIAL DE CUENTAS DE 24 DE NOVIEMBRE DE 2011).

VISTO el dictamen elaborado el pasado día 24 de Noviembre por la Comisión Especial de Cuentas, respecto al expediente de Tributos Locales, su gestión, recaudación e inspección y Precios Públicos, a tenor de lo dispuesto en los Artºs. 16 y 17 de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, en concordancia con el Artº. 15 y ss. de la Norma Foral 5/89, de 4 de Julio, de Hacienda Forales y, conforme lo establece el Artº. 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, para la modificación de las Ordenanzas Fiscales de cara al ejercicio 2012.

* Alkateak Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV): Gaurko plenoa ez-ohikoa da eta gai zerrendan puntu bakarra daukagu. Puntu honetan nik sarrera txikitxo bat egingo dut eta gero txandetara sartuko gara.

Pleno areto honetara ekartzen ditugun arau fiskalak %3aren igoera dauka iazko arau fiskalekin konparatuz. Aurreko hiru urtetan izoztuta egon dira ordenantza fiskalak, 2009an, 2010ean eta 2011n eta aurten proposatzen duguna da KPI igotzea. Denok dakigu egoera ekonomikoa oso konplikatu dela eta, aldi berean, badakigu baita ere, oinarritzko zerbitzuak bere horretan iraunarazi behar ditugula, beraz, erronkarik nagusia da bataren eta bestearen arteko tentsioa mantentzea. Aldez aurreko proposamen honi zuzenketak egin zaizkio eta eskerak eman nahi diet Talde guztiei aurkezturiko zuzenketengatik; betiko moduan maila handikoak izan dira eta oso zintzoak.

Osotasunerako zuzenketa bi izan ditugu: Alderdi Popularrak eta Bilduk aurkezturikoak eta, partzialak Aralarrek aurkeztutako 10, Alderdi Popularrak aurkeztutako 8, Alderdi Sozialistaren 7 eta Bilduren 4.


Ondoren hasiko gara plenoaren mekanikarekin. Bozeramaleen batzordean geratu ginen moduan, eztabaidak txanda bi izango ditu, txanda bakoitzean talde bakoitzak denbora izango du: lehenengo txandan 15 minutu talde bakoitzeko eta bigarren txan-

* Alcaldesa Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV): El pleno de hoy es de carácter extraordinario y consta de un único punto en el orden del día. Realizaré una breve introducción, y tras ello pasaremos a abrir los turnos.

Las normas fiscales que presentamos en este pleno suponen un incremento del 3% respecto a las del año pasado. Durante los últimos tres años, 2009, 2010 y 2011 las ordenanzas fiscales han estado congeladas, y proponemos que este año se realice una subida en base al IPC. De todos es sabido que nos hallamos en una situación económica muy complicada, pero asimismo sabemos que debemos salvaguardar nuestros servicios básicos, por lo que nuestro mayor reto consistirá en mantener la tensión entre ambas necesidades. Ante esta primera propuesta se han presentado varias enmiendas, y quisiera agradecer a todos los Grupos sus propuestas, puesto que como siempre, se tratan aportaciones honestas y de un gran nivel.

Han sido presentadas dos enmiendas a la totalidad: una por parte del Partido Popular y la otra por parte de Bildu. En cuanto a las enmiendas parciales, Aralar ha presentado 10, el Partido Popular 8, el Partido Socialista 7 y Bildu 4.

Dicho lo cual, explicaré cuál será la mecánica de este pleno. Tal y como acordamos en la Junta de Portavoces, el debate se realizará en dos turnos, y en cada uno de ellos se contará con un tiempo previamente establecido de 15 minutos para



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

dan 5 minutu talde bakoitzeko. Eta honen ostean bozketa egingo dugu, lehenengo bozkatuko ditugu osotasunerako zuzenketak, lehenengo Alderdi Popularrarena eta, aurrera ez badoa, Bildurena. Bietako batek ere ez badu aurrera egiten zuzenketa partzialekin sartuko gara, lehenengo Aralarren 9 zuzenketak bozkatuko ditugu eta ondoren Alderdi Sozialistak aurkeztutako zuzenketak. Onartzen direnak zuzenean irizpenera batuko dira eta honen ostean, irizpena bera bozkatuko genuke.

Beste barik lehenengo txanda zabalduko dugu.

* **Maeztu Perez jaunak (Aralar):** Lehenengo eta behin esan nahi dut arraroa egiten zaidala eztabaida zabaltzea dakigunean osoko bi zuzenketa daudela baina testurik ez, beraz, nire kasuan ez dut aipatuko jakin arte zeren inguruan diren osoko zuzenketak eta orduan bigarren txandan horren inguruko jarrera hartuko dugu.

Gure jarrera azaldu baino lehen, sarrera bezala esan nahi dut, aurreko beste urte batzuetan ez bezala, denbora gutxiago izan dugu ordenantza fiskalak aztertzeke eta, batez ere, gure proposamenak egiteko. Ez dakit zergatik itxaron den horrenbeste gobernu taldearen proposamena aurkezteko, eta ez gure kalterako delako bakarrik, hemen jende berria dago eta agian denbora gehiago behar dute ordenantza fiskalak aztertzeke, baina gehien bat, edo eragozpen handienak, langileentzat dira, hainbat txosten eskatu ditugulako eta hainbat txosten egin behar izan dutelako azken momentuan, eta ez dut uste egon den denbora tartea ordenantzak eztabaidatzeko nahikoa izan denik.

Besteak beste, eta nire interbentzioan zehar aipatu dudanez, behin baino gehiagotan eskatu dut zerbitzu publikoen kosteen azterketa. Bihotzez eskertzen dut Ogasun sailetik egin duten lana, behintzat informa-


cada grupo en el primer turno y de 5 para cada uno en el segundo. Tras ello, procederemos a realizar la votación. Primero votaremos las enmiendas a la totalidad. Comenzaremos con la del Partido Popular, y si no sale adelante, votaremos la de Bildu. Si ninguna de ellas prospera, seguiremos con las enmiendas parciales: primero las 9 enmiendas de Aralar y luego las presentadas por el Partido Socialista. Las que sean aprobadas se sumarán directamente al dictamen, tras lo cual procederemos a su votación.

Sin más dilación, abriremos el primer turno.

* **Concejal Sr. Maeztu Perez (Aralar):** Comenzaré señalando que me parece extraño que se abra este debate cuando se sabe que hay dos enmiendas a la totalidad pero se carece de texto; por lo que en lo que a mí respecta, no daré mi opinión hasta que conozca exactamente de que tratan esas dos enmiendas a la totalidad; por lo tanto, será en el segundo turno cuando explique nuestra postura al respecto.

Antes de exponer nuestra postura, quisiera manifestar, a modo de entrada, que a diferencia de años anteriores este año hemos contado con menos tiempo para analizar las ordenanzas fiscales y sobre todo para realizar nuestras propuestas. No sé por qué se ha esperado tanto para presentar la propuesta del Equipo de Gobierno, lo cual nos ha sido perjudicial, aún más teniendo en cuenta que hay gente que ha comenzado recientemente su andadura entre nosotros y que tal vez hubieran necesitado más tiempo para analizar las ordenanzas, pero sobre todo ha perjudicado a los empleados, a los cuales hemos solicitado muchísimos informes que han tenido que realizarlos en el último momento. En consecuencia, no creo que el plazo para el estudio y debate de las ordenanzas haya sido suficiente.

Entre otras cuestiones, y tal y como he mencionando a lo largo de mi intervención, he solicitado varias veces el análisis del coste de los servicios públicos. Agradezco enormemente el trabajo realizado por el Departamento de Hacienda para hacernos llegar por lo menos alguna información, aunque, según nos indica-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

zioren bat guri helarazteko, baina helarazi digutenean esan digute informazio hori behin behinekoa zela astirik izan ez dutelako zerbitzu publikoen behin betiko kostuen txostena egiteko, eta, beraz, daukagun informazioarekin egin dugu gure proposamena, eta eztabaidari ekin diogu.

Hau guztia esanda azalduko ditut zeintzuk izan ziren aurkeztutako zuzenketak eta zergatik aurkeztu genituen.

Lehenengo eta behin esan behar dugu pozten garela alde batetik, gobernu taldeak alde batera utzi duelako aurreko bi urteetan izandako jarrera populista eta aurten behar den moduan ekin diola. Alde batetik, kontutan izanda zerbitzu publiko batzuk dau dela eta, azken finean, estaldura maila ez bada %100ekoa, eta oso zaila da horrela izatea, behintzat bai edukitzea estaldura maila hori kontutan tasak ezartzerako orduan. Tasarik ez badugu igotzen eta zerbitzuaren kostua igo egiten bada, azken finean, aurrekontuetan diru gutxiago egongo da beste gauza batzuetarako, izan ere, zerbitzu horiek berdin-berdin ordaindu behar direlako. Beraz, lehen esaten zena esatea, hau da, "ez ditugu tasak igoko dagoen egoerarengatik", alperrikoa zen, azken finean berdin berdin ordaintzen zituztelako zerbitzu horiek aurrekontuen bitartez, eta guretzat, hori, diskurtso populista zen.

Aurten %3ko igoera proposatzen da, betiere, KPIren arabera. Ez zaigu iruditzen indizerik onena baina ez daukagu besterik. Gure iritziz, tasak ezartzerako orduan jarraitu behar den indizea zerbitzu horren kostua eta estaldura maila dira, beti ere, KPI kontuan izanda igoerak egiterako orduan, baina lehenengo gauza da neurtzea nolako estaldura maila daukagun.

Lehenengo eta behin hiru zuzenketa orokor sartu genituen, eta orokorra esaten dut ez direlako igoera konkretuak planteatzen. Alde batetik eskatu genuen, ordainketak


ron, se trate de una información provisional, puesto que no han tenido tiempo suficiente para realizar un informe sobre los costes definitivos de los servicios públicos, por lo que hemos tenido que elaborar nuestra propuesta en base a la información con la que en estos momentos contamos, y con ello hemos comenzado el debate.

Dicho lo cual, procederé a exponer las enmiendas presentadas y a explicar su motivación.

Comenzaré diciendo que por una parte nos alegramos de que el Equipo de Gobierno se haya alejado de la actitud populista de los dos años precedentes y haya cogido al toro por los cuernos. Por un lado, teniendo en cuenta que existen servicios públicos y que su grado de cobertura, a fin de cuentas, no es del 100% —lo cual resulta ciertamente difícil—, es importante que por lo menos a la hora de establecer sus tasas se tome en consideración dicho grado de cobertura. Si no subimos las tasas pero por el contrario sí se incrementa el coste del servicio, contaremos con menos dinero en los presupuestos para otros fines, puesto que dichos servicios deberán ser igualmente sufragados. Queda claro que eso que se solía decir de que "no subiremos las tasas por la situación en la que nos encontramos" es un sinsentido, puesto que a fin de cuentas esos servicios se debían sufragar igualmente, y es por ello por lo que nos parecía un discurso meramente populista.

Este año se propone un incremento del 3%, en base siempre al IPC. No nos parece el mejor índice pero no tenemos otro. Pensamos que las tasas se deberían establecer en base al coste y grado de cobertura de dicho servicio, teniendo siempre en cuenta el IPC a la hora de efectuar un incremento. Pero el primer paso debe ser el análisis del grado de cobertura de dichos servicios.

Primeramente presentamos tres enmiendas generares, y digo generales puesto que no se plantean aumentos concretos. Por una parte, pedimos que a la hora de efectuar los pagos se tenga la posibilidad de reali-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

egiten direnean, zatika ordaintzeko aukera izatea, baina gure ordenantza fiskaletan jasota dago honek "zigorra" ekarriko duela. Gure ustez, kasu honetan eta ikusita zein den egoera, zatika kobratzen denean ez litzateke interesik aplikatu behar, beti ere epe logiko baten barruan ordaintzen bada.

Idazkaritzaren txosten bat daukagu, eta txarto ulertu ez badut esaten du guztietan ezin dela hori aplikatu, foru arau orokorrak esaten baitu interes horiek kobratu egin behar direla. Nik ulertzen dut, hori, kobratu behar duen pertsona juridikoaren eskumen bat dela, udalaren eskumena alegia. Beti egongo da aukera ez kobratzeko eta horregatik mantentzen dugu gure proposamena nahiz eta txostenaren bigarren partea irakurrita ikus daitekeen zerga konkretu batzuetan bai aplikatu daitekeela inongo arazorik barik, beraz, gure proposamena mantendu egiten dugu.

Beste alde batetik, proposatzen genuen zabor-bilketaren eta estolderiaren tasan epigrafe berri bat sortzea eta zergatzeko kontzeptu berri bat sortzea, alegia, une honetan hutsik dauden etxebizitzetara tasa berri bat ezartzea: sei hilabeteko 250 euro eskatzen genuen. Badakigu honen inguruan izan dugun eztabaida eta badakigu ere zerga aproposena OHZ dela, baina hor ez daukagu aukerarik. Guk pentsatzen dugu bete behar duten funtzio soziala betetzen ez duten etxebizitzetara tasa edo zigor berezi bat jarri behar zaiela.


Uste dut aukera dagoela, lehenengo eta behin, erroldaren bitartez egitea hau, eta halaxe komentatu genuen. Ordenantza fiskalak indarrean sartzen direnean gutun bat bidali beharko litzateke pertsona bat bera ere erroldatuta ez dauden etxebizitzetara, 30 eguneko epea emanaz argindarra eta ur-kontsumoak helarazteko udaletxeari eta ikusteko kontsumo minimoak betetzen diren ala ez. Horrela aukera egongo litza-

zarlos de forma fraccionada, pero en nuestras ordenanzas fiscales se establece que ese procedimiento acarrea una "sanción". Creemos que en este caso, y teniendo en cuenta la situación actual, cuando se cobra de forma fraccionada no se debería aplicar ningún interés, siempre y cuando el pago se realice dentro de un plazo lógico.

Tenemos un informe de la Secretaría en el que, si no me equivoco, se señala que esa posibilidad no es aplicable a todos los casos, puesto que la Norma Foral General establece que deben cobrarse esos intereses. Pero yo entiendo que se trata de una competencia de la persona jurídica que debe cobrar, una competencia, en este caso, del Ayuntamiento. Siempre habrá la posibilidad de no realizar ese cobro, y es por eso por lo que mantenemos nuestra propuesta, más aún sabiendo que tal y como se expone en la segunda parte del informe, en ciertos impuestos sí que puede aplicarse sin ningún obstáculo. Por lo tanto, mantenemos nuestra propuesta.

Por otro lado, proponíamos que en la tasa del servicio de recogida de basura y alcantarillado se añadiera un epígrafe que recogiera un nuevo concepto a gravar en el que se estableciera una nueva tasa a las viviendas que en este momento se encuentran vacías, para lo que proponíamos 250 euros por seis meses. Ya sabemos todo lo que se ha debatido al respecto y somos conscientes asimismo de que el impuesto más adecuado es el IBI, pero ahí no tenemos ninguna posibilidad. Pensamos que a aquellas viviendas que no cumplen una función social debe establecerse una tasa o sanción especial.

Creo que, tal y como lo comentamos, existe la posibilidad de hacerlo, en principio, a través del censo. A la entrada en vigor de las ordenanzas fiscales, debería enviarse una carta a las viviendas donde no esté empadronada ni una sola persona, en la que se indique que cuentan con un plazo de 30 días para presentar ante el Ayuntamiento los justificantes del consumo de luz y agua, ya que así se conocería si dichas viviendas cumplen o no con el



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

teke jakiteko, inor erroldatuta ez badago ere, benetan norbait bizi den etxe horretan. Badakigu eztabaidagarria dela, badakigu ere beste leku batzuetan aurten jarri dutela, Gasteizen hain zuzen ere. Bilduren proposamena izan zen eta Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistaren botoekin aurrera ateratzen zen.

Pentsatzen dugu gai honetan beti dela momentua eskua hartzeko, baina are gehiago Durangori etxebizitzak egiteko lurzorua -zorionez!- agortzen ari zaionean: ordua da etxebizitza hutsen inguruan politika bereziak egiten hasi gaitezen.

Azkenik proposatu genuen telefonia mugikorren enpresei jabari publiko radioelektrikoa erabiltzearen daukagun ordenantza fiskala berritzea: kobratzeko orduan erabili behar dugun formula errazteko, alegia. Donostian dagoen ordenantza fiskala eskatu genuen, eta esan digute ordenantza bera ez dagoela errekurrituta baizik eta likidazioak, baina enpresak sartu behar izan dituela berme batzuk eta momentu batean Epaitegi Gorenak esaten badu hori posible dela, zuzenean kobratuko dituzte berme horiek. Uste dugu posible dela kobratzea eta, horrexegatik, horixe proposatzen dugu. Hiru zuzenketa hauek ez ziren batzordean bozkatu eta guk mantendu egiten ditugu bilkura honetan.

Azkenik, proposamen zehatzak egin genituen hainbat tasen kopurua igotzerako orduan. Bakarrik bat onartu da, banketxeen zabor bilketagatik kobratzen zaien tasa, hain zuzen: %8ko igoera eskatzen genuen, eta onartu egin da, baina beste guztiak ez. Beraz, momentu honetan mantendu egiten ditugu.

Ordenantza fiskalen inguruko gure jarrera baldintzatuta dago gure zuzenketak onartuko ote direnarekin, eta itxaron egingo dugu beste taldeen txanda jakiteko nolako jarrera duten gure zuzenketen inguruan, eta bigarren txandan azalduko dugu zein izango den gure jarrera.


consumo mínimo. De esa manera se podría saber si realmente vive alguien en esas viviendas, aun no estando censado en ellas. Sabemos que puede ser un método discutible, pero en otros lugares, como en Gasteiz, ya se ha puesto en marcha este mismo año, a propuesta de Bildu y contando con los votos a favor del Partido Popular y el Partido Socialista.

Creemos que siempre es buen momento para tomar cartas sobre este asunto, más aún teniendo en cuenta que a Durango, afortunadamente, se le está agotando el terreno para la edificación de viviendas: ya es hora de que comencemos a realizar políticas concretas en cuanto a las viviendas vacías.

Finalmente, propusimos que se reformara la ordenanza fiscal sobre la utilización de la propiedad pública radioeléctrica por parte de las empresas de telefonía móvil, para que se simplificara su fórmula de cobro; para lo cual solicitamos la ordenanza fiscal de Donostia, y nos han señalado que la ordenanza en sí no esta recurrida sino las liquidaciones, pero que la empresa ha tenido que asumir ciertas garantías y que si en algún momento el Tribunal Supremo establece que es posible, dichas garantías se cobrarán directamente. Creemos que es posible realizar ese cobro, y es por ello por lo que lo proponemos. Estas tres enmiendas no fueron votadas en la comisión y las mantenemos en este pleno.

Para concluir, realizamos ciertas propuestas concretas, para el incremento de la cuantía de diversas tasas. Solamente se ha aceptado una, la tasa que se cobra a las entidades bancarias por el servicio de recogida de basuras, para la que solicitábamos un incremento del 8%, y ha sido aprobada, pero las demás no. Por lo tanto, en este momento las mantenemos.

Nuestra postura ante las ordenanzas fiscales está supeditada a la aceptación de nuestras enmiendas, por lo que esperaremos al turno de los demás Grupos para conocer su postura respecto a nuestras enmiendas. Por lo tanto, esperaremos al segundo turno para dar a conocer nuestra postura.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

* **Gastañazatorre Urizar jaunak (PP):** Printzipioz, osoko bilkura honen aurreko bozeramaileen bilkuran adierazi dudak moduan, atzera bota ditugu zatikako zuzenketak, ez baitzuten aurrera egin pasa den asteko Kontuen Batzordean. Dena den, zuzenketa horiek guztiak foru-arauaren barruan aintzat hartuta zeuden; denak ziren logikoak.

Datorren ekitaldirako udal-tasak eta -zergak igotzeko proposamena dugu gaur langai, eta bi zerga-eredu oso desberdin ikusiko ditugu gaur hemen. Alde batean daude herritarrei zerga-presioa areagotzearen alde egiten dutenak, eta beste aldean, tokian tokiko zerga-tributuak izoztu eta dirua zergadunaren poltsikoan geratzeko alde gaudenok.

Gure ustez, ez da hau gure herritarrei zerga-presioa areagotzeko unea, batik bat kontuan hartuta zer nolako testuinguru ekonomiko latza ari garen bizitzen. Une honetan enpresa eta denda txikiak ateak ixten ari dira, eta familia ugari daude lanik gabe —1.500 ia Durangon—. Herritar askok kostata egiten diete aurre hipoteken ordainei; zintzoki uste dut, bada, ez dela familien egoera ekonomikoa gehiago estutzeko unea, baizik eta haien egoera ekonomikoa hobetzen laguntzekoa.


Gainera, igoera hori zuzitzeko, zerbitzu eta prestazio publikoak mantentzeko eta bermatzeko beharra hartzen da argudiotzat, baina argudio hori faltsua da, tokian tokiko zerbitzuei eutsi ahal izatea ez baitago proposatutako igoerek eragingo duten diru-sarreraren baldintzapean; izan ere, igoera horren bidez, 300.000 euro baino gutxiago lortzea aurreikusten da, ordenantzetan bertan jasotako hobariak kontuan hartuta. Alegia, hurrengo aurrekontu hori ondo "orraztu" eta doitu gero, zergen eta tasen igoeraren bidez lortuko ei den zenbatekoa berdindu ahal izango litzateke.

* **Concejal Sr. Gastañazatorre Urizar (PP):** En principio, de igual forma que he comentado en la Junta de Portavoces previa a este pleno, no mantenemos las enmiendas parciales en este Pleno porque no han prosperado en la Comisión de Cuentas de la semana pasada. He de comentar que todas ellas entraban dentro del marco que contempla la norma foral. Todas eran lógicas.

Hoy se nos plantea la subida para el próximo ejercicio de las tasas e impuestos municipales, Y hoy aquí se van a ver dos modelos fiscales bien diferentes uno de otro. Por un lado, están quienes apuestan por incrementar la presión fiscal al ciudadano y por otro, los que realmente apostamos por la congelación de los tributos locales y que el dinero esté en los bolsillos del contribuyente,

Entendemos que no es el momento de incrementar la presión fiscal a nuestros vecinos, fundamentalmente por la coyuntura económica en la que estamos inmersos. En un momento en que las empresas y pequeños comercios cierran sus persianas, en el que muchas familias se encuentran en situación de desempleo, casi 1.500 en Durango, en el que para muchas personas les cuesta hacer frente a sus obligaciones hipotecarias, creo sinceramente que no es el momento de asfixiar más a las economías familiares, sino de tratar de liberarlas para tratar de mejorar su situación económica.

Además, se pretende justificar la subida en base a la necesidad de mantener y garantizar la sostenibilidad de los servicios y las prestaciones públicas. Esta afirmación es falsa, ya que la sostenibilidad de los servicios locales no depende de los ingresos que se generen a partir de las subidas planteadas, ya que la cantidad que se prevé recaudar no llegará a los 300.000 euros, si tenemos en cuenta las bonificaciones que recogen las propias ordenanzas. Es decir, realizando un "peinado" y ajuste del próximo presupuesto; se podrían compensar la cantidad prevista ingresar a través del incremento de impuestos y tasas.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

Alderdi Popularrak, gainera, zenbait hobari aurkeztu ditu, ordenantzak hobetze aldera. Proposamen horiek joera sozial argia zuten; hala, eta enplegua sustatzea eta egoera latzean dauden familiei laguntzea zuten helburu, eta, horretarako, zerga-hobariak proposatzen zituen baita langabezia daukaten pertsonak laneratzeko ekimenak ere, baina ez da *gure zatikako zuzenketa bakar bat ere onartzeko* inolako borondaterik egon.

Gure Alderdiak ez du egoki ikusten dirua biltzeko formula modura zerga-presioa areagotzea; era berean, ez dugu uste, ares-tian esan dugun legez, tasak eta zergak izozteak kolokan jartzen duenik zerbitzu publikoen kalitatea, horixe baita zerga-presioa areagotzearen alde daudenei darabilten argudioa. Gure ustez, aurrekontua doitu egin beharko litzateke, alferreko gastu guztiak ezabatuta, udal-zergak eta -tasak izoztearen eragina orekatuko bailuke neurri horrek.

Horrez gain, zerga-iruzurra agerian uzteko neurriak hartzearen alde gaude, eta batik bat lanpostuak sortzen lagunduko duten neurriak hartzearen alde, horixe baita udalen finantza-kaudimena bermatzeko irtenbide iraunkor bakarra. Zergak igotzeak ez du ekarpen handirik egiten baliabideei dagokienez, eta, kontrara, azken sastakoa ematen die okerren daudenei.

Hortaz, proposamenaren aurka bozkatuko dugu guk.

* **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE):** Alderdi Sozialistak zazpi zuzenketa aurkeztu ditu guztira, eta jarraian azalduko ditut banan bana. Zazpi zuzenketa horietatik sei onartu, eta ordenantza fiskalen testuari gehitu zaizkio.

Lehenengo zuzenketa trakzio mekanikoko ibilgailuen tasari dagokio. Zuzenketa horretan, bereizketa bat egiten dugu, ibilgailuak zenbat zaldi dituen kontuan hartuta; hala,

Además, el Partido Popular ha presentado una serie de bonificaciones que trataban de mejorar las propias ordenanzas y que contenían una clara orientación social y de fomento del empleo, tratando de ayudar a las familias que se encuentran en peor situación y tratando de incentivar mediante bonificaciones fiscales, la incorporación al mercado laboral de las personas en situación de desempleo, pero no ha existido la más mínima voluntad de *introducir ni una sola de nuestras enmiendas* parciales.


Nuestro Partido no apuesta por subir la presión fiscal como fórmula de recaudación, ni tampoco creemos como hemos expresado anteriormente, que la congelación de las tasas e impuestos ponga en riesgo la calidad de los servicios públicos. Ese es el mensaje que pretenden instalar aquellos que apuestan por subir la presión fiscal. Nosotros apostamos en mayor medida por ajustar los presupuestos eliminando todo tipo de gasto superfluo y compensar de esta manera la congelación de los tributos y tasas municipales.

Además, apostamos por medidas que ayuden a aflorar el fraude fiscal y sobre todo, por medidas que ayuden a crear puestos de trabajo, que es la única solución duradera en el tiempo que puede garantizar la solvencia financiera de los ayuntamientos. Subir los impuestos además de no aportar una gran cantidad de recursos, no hace sino apuntillar a aquellos que peor lo están pasando.

Por tanto, nuestro voto es en contra de la propuesta.

* Concejala **Sra. Rios Ramos PSE-EE (PSOE):** El Partido Socialista ha presentado un total de siete enmiendas que a continuación voy a explicar. De esas siete enmiendas 6 han sido aceptadas e incorporadas al texto de ordenanzas fiscales.

La **primera enmienda** es la relativa a la tasa de vehículos de tracción mecánica, y en ella hacemos una diferenciación en función de los caballos y proponemos un incre-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

% 3ko igoera proposatu dugu, 16 zaldi bitartean dituzten ibilgailuetarako; % 5ekoa, 20 zaldi arteko ibilgailuetarako, eta % 7koa 20 zaldi baino gehiago dituzten ibilgailuetarako. Izan ere, gure ustez zerga horretan bereizketa bat egin beharra zegoen, ibilgailuen potentzia eta balioa kontuan hartuta.

Bigarren zuzenketa zabor-bilketaren eta estolderiaren zerbitzuari dagokio, eta % 50eko hobaria ezartzea proposatzen genuen, langabezian dauden pertsonentzat. Bistan da langabetuak direla egoera latzena bizitzen ari direnak, eta, beraz, zerbitzu publikoetarako egiten duten ekarpenak ere haien gaitasun ekonomikoarekin bat etorri behar du, gure ustez. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu hobari horren berri luze eta zabal ematea, subjektu pasiboek eurek, hots, langabetuek eurek egiaztatu behar baitute langabezian daudela, % 50eko deskontua ezar dakien.

Hirugarren zuzenketa bozkatzeko dago oraindik, arazo tekniko bat dela-eta, baina badirudi zuzenketaren idatzera aldatuta konponduko dela arazoa. Zuzenketak udalaren jabari publikoa publizitaterako okupatzeagatikotasari dagokio, eta haren helburua da ordenantzan jasota geratzea gure udalerrian dauden publizitate-mota guztiak, baldin eta diru-sarrera pribatua eta jarduerak ekonomikoa eragiten badute, bide publikoan haien jardueraren berri emanaz eta bezeroak hautemanaz. Tasa berria litzateke hori.

Laugarren zuzenketak, berriz, merkataritzako eta ostalaritzako jardueran titularitate aldatzeko lizentziaren tarifarako salbuespena jasotzen du. Tasa horretatik salbuetsita egoteko, dena delako jarduerak abian jarraitu beharko du, eta ezin izango da kontratatutako langileen kopurua murriztu. Gainera titularitate-aldaketak familiakideen artekoa izan behar du. Durangon dauden saltokiak abian jarraitzeko erraztasunak ematea da zuzenketa horren helburua.

Bosgarren zuzenketak ere filosofia bera du; hala, merkataritza edo ostalaritzako zuzen-


mento del 3% para vehículos hasta 16 caballos, un incremento del 5% para vehículos de hasta 20 caballos y un incremento del 7% para vehículos de más de 20 caballos. El motivo de esta enmienda es la necesidad de distribuir el impuesto en tramos más acordes con la potencia y el valor de los vehículos.

La **segunda enmienda** que planteamos es referente a la recogida y eliminación de basuras y alcantarillado y proponemos una bonificación del 50% a las personas que se encuentran en situación de desempleo. Aquí es evidente que son las personas que peor lo están pasando y consideramos que deben contribuir a los servicios públicos de acuerdo a su capacidad económica. Nos parece muy importante que se le de publicidad ya que es el sujeto pasivo, en este caso la persona desempleada, la que tiene que acreditar que se encuentre en una situación de desempleo para que se le aplique este descuento del 50%.

La **tercera enmienda** está pendiente de votación por un problema técnico, que parece que tiene solución con una nueva redacción y hace referencia a la tasa por ocupación de dominio público municipal con publicidad. El objetivo de esta enmienda es recoger en la ordenanza todo tipo de publicidad existente en el municipio que genere ingresos privados y actividad económica volcando su actividad publicitaria y de captación de mercado en vía pública. Sería una nueva tasa.

La **cuarta enmienda** es referente a la exención de la tarifa por licencia de cambio de titularidad de comercio en comercios y hostelería, siempre y cuando se mantenga la continuidad de la apertura y no exista reducción de personal contratado y siempre que ese traspaso se dé entre familiares. El motivo de ella es facilitar y promover la continuidad de los comercios que existen en Durango.

La **quinta enmienda** tiene la misma filosofía y hace referencia a la exención del impuesto sobre el incremento del valor de los



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

neko jaraunspenez jasotako lurzoru hiritarren balioa handitzeagatik zergatik salbuestea proposatzen du, betiere jarduerak abian jarraitzen badu eta kontratatutako langileen kopurua murrizten ez bada. Eta arestian aipatutako helburu bera du, alegia, saltokiak abian jarraitzea.

Seigarren zuzenketak dokumentuak bidaltzeko zerbitzuari dagokio, eta elkarteak, fundazioak eta udal-ordezkaritzarik gabeko alderdi politikoak salbuetsita egotea proposatzen dugu; horretarako, betiere, behar bezala egiaztatuta eduki beharko dute haien egoera, elkarteen, fundazioen edo alderdi politikoaren erregistroan, hurrenez hurren. Elkarte, fundazio eta alderdi politikoek udal-bizitzan parte hartzeko duten eskubideari bide ematea eta haien intereseko gaien berri izatea da zuzenketa honen helburua.

Zazpigarren zuzenketa zabor-bilketako eta estolderiako zerbitzuari dagokio, eta den-dei, ostalaritzako negozioei eta antzekoei tasa hori izoztea proposatzen dugu.

Azkenik, beste zuzenketa bat proposatu nahi dugu hemen. Izan ere, banku-erakundeek kutxazainak eta kutxa gotorrak jabari publikoan edukitzeagatik ordaintzen duten tasan % 5eko igoera proposatu zuen batzordean Bilduko ordezkariak. Alderdi Sozialistak proposatutako tasa da hori, eta Bilduren proposamenaren alde egiteko asmoa genuen, baina, atzera bota duenez, guk proposatzea erabaki dugu.

Horrenbestez, 8 zuzenketa izango lirateke guztira, eta bi baino ez zaizkigu geratzen bozkatzeke: aipatu berri dudana hau eta bide publikoan publizitatea egiteari buruzkoa.

Azkenik, aipatu gura nuke etxebizitza hutsen tasari dagokionez, interesgarria iruditzen zaidala gai hori jorratzen hastea, baina, dirudienez, arazo juridikoak daude; horregatik, bada, tasa hori ezarrita duten udalen gaineko segimendua egitea proposatzen dugu, eta, tasa sei hilabetean behingoa denez, udalerrri horietan aurrera egiten badu eta ondo funtzionatzen badu,

terrenos de naturaleza urbana en la transmisión por herencia directa de comercio y hostelería en la que se mantenga la continuidad de la apertura y no exista reducción de personal contratado. Y como decía antes responde a lo mismo, a que se mantengan los comercios.


La **sexta enmienda** hace referencia al servicio de expedición de documentos, y proponemos que queden exentos de esta tasa tanto las asociaciones, fundaciones y partidos políticos sin representación municipal, convenientemente acreditados en los registros de asociaciones, fundaciones y partidos respectivamente. El motivo es dotar de contenido al derecho a la participación en la vida municipal y tener conocimiento de los asuntos de interés de las asociaciones, fundaciones y partidos políticos.

La **séptima enmienda** hace referencia a la recogida y eliminación de basuras y alcantarillado y proponemos la congelación de la tasa a los comercios, negocios de hostelería y similares.

Finalmente, queremos proponer aquí una nueva enmienda. La representante de Bildu propuso en comisión un incremento de la tasa por ocupación de dominio público de un 5% a cajeros y cajas fuertes de entidades bancarias. En su día el Partido Socialista propuso esta tasa concreta y estábamos de acuerdo en apoyarla, pero puesto que la ha retirado hemos decidido proponerla.

Por lo tanto, serían un total de 8 enmiendas, y tanto sólo nos quedarían por votar dos, esta última que acabo de mencionar y la de la publicidad en vía pública.

Para concluir sí me gustaría comentar que en cuanto a la tasa de viviendas vacías nos parece interesante comenzar a trabajar en ese sentido, pero debido a los problemas jurídicos que parece que hay, planteamos hacer un seguimiento en aquellos ayuntamientos donde se esté aplicando, y puesto que es semestral, si va adelante, y va bien, propondríamos al Equipo de Gobierno que



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

proposamen hori ordenantza fiskalen testura gehitzea proposatuko genioke Gobernu-Taldeari. Ordainketa zatikatuari dagokionez, Foru Arauaren kontrakoa dela dirudi, baina gero benetan aplikatzen bada, ez dago zertan aurka egon. Gure ustez, ez zaie interesik kobratu behar zatika ordaintzea erabakitzen dutenei. Gobernu-Taldeari erabaki hori har dezan eskatzen diogu.

* **Uribe Padilla andreak (Bildu):** Bilduren kasuan lehenengo aldia da Ordenantza Fiskalak lantzen ditugula. Pentsatzen dugu emendakinak aurkezteko denbora gutxi izan dela. Ordenantzek daukaten garrantzia ikusita falta bota izan dugu arinagokoetan lantzeko izan dugun denbora. Gobernuak planteatzen duen %3ko igoera ez dugu zuzen ikusten momentuko egoera ikusita eta gehien bat hiru urtetan "izoztuta" egon direnean. Orain hasiko naiz guk aurkezten dugun osotasunerako zuzenketarekin.

Lehenengo eta behin kontzeptu bat argitu nahi dugu, ordenantza fiskalak eta aurrekontuak batera landu behar direla uste dugu, nahiz eta bozkatzeko momentuan bakoitza bere aldetik bozkatu. Lortu nahi ditugun diru-sarrerak, nahi edo behar dugunaren arabera baldintzatuko dira, zein proiektu egin behar den, zer behar den, zenbat behar den eta nondik eta nork ordainduko duen eta zenbat. Hau guztia ez da soilik urte baterako ikuspuntuarekin, hurrengo urteetan ditugun proiektuei begira ere egiten dugu, eta modu eraginkor batean egiteko modu bakarra lanketa bateratua egitea da.


Proiektuen araberrako sarrerak izan beharko lituzke udalak, proiektu horiek identifikatu, ponderatu eta apustuen araberrako lanketa bat egin; baina hau aurrera eramatea ez da 21 pertsonen momentu jakin bateko eztabaidaren ondorengo pausua izan behar; horretan datza Durangoko Bilduk defendatzen duen kontzeptuen aldaketa: guzti hau herritarren parte-hartzetik eratorria izan behar da. Parte-hartzearen inguruko beste

se incorpore al texto de las ordenanzas fiscales. En cuanto al fraccionamiento del pago, parece que va en contra de la norma foral, pero si a la hora de la verdad se aplica no tiene porque darse. Nos parece que a las personas que decidan fraccionar el pago no se les cobre intereses. Le pedimos al Equipo de Gobierno que por favor lo aplique.

* **Concejala Sra. Uribe Padilla (Bildu):** En el caso de Bildu es la primera vez que abordamos el tema de las Ordenanzas Fiscales. Pensamos que el plazo para la presentación de las enmiendas ha resultado insuficiente. Teniendo en cuenta la importancia de las ordenanzas, hemos echado en falta el plazo con el que contaron en anteriores ocasiones. No creemos que el incremento del 3% planteado por el Equipo de Gobierno sea correcto, en consideración al momento que vivimos y teniendo en cuenta que han estado "congeladas" durante tres años. Dicho lo cual, procederé a exponer la enmienda a la totalidad que presentamos.

Para comenzar quisiera indicar que a nuestro parecer las ordenanzas fiscales y los presupuestos deben ser abordados conjuntamente, aunque su votación se realice por separado. Los ingresos a adquirir están condicionados a lo que se quiere o se debe realizar, es decir, se debe tener en cuenta qué proyectos se quieren efectuar y qué es lo que se necesita para ello: cuánto se necesita, de dónde se logrará y quién y en qué cuantía lo sufragará. El enfoque, además, no debe ser anual, sino que se deben tener en cuenta también los proyectos a desarrollar en años posteriores. Y la única manera de realizar esa labor de una forma efectiva, es elaborarlas de manera conjunta.

El Ayuntamiento debería poseer unos ingresos conforme a sus proyectos, para lo que se deberían identificar y ponderar dichos proyectos, y abarcarlos según las prioridades; pero tal tarea no puede circunscribirse al resultado de un debate entre 21 personas en un momento dado, y en eso se basa exactamente el cambio de conceptos que defiende Bildu: se trata de una labor que debe realizarse mediante la participación ciudadana. Al hilo de lo cual,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

gogoeta bat ere luzatu nahi dizuegu: parte-hartzea ez da norbaiten monologoa entzutea, ez da paneletan aurrekontuen edo ordenantza fiskalen kopia bat jartzea edo prentsan azalpenak ematea. Parte-hartzeak erabaki-ahalmena dakar eskutik eta hau ukatzen bada, beste izen asko izango dezake, baina ez ordenantzak ez aurrekontuak ez dira parte-hartzaileak izango. Herriak eman beharko lioke lehentasuna proiektuari, herritarrei galdetu eta, herritarren parte-hartzearen ondoren, herritarrek hartzen dituzten erabakien ondoren, ordenantza fiskalak eta aurrekontuak zehaztu.

Hori da parte-hartzea, adibidez Otxandion egiten dena, eta guztiz egingarria da. Biztanle kopuruan desberdinak garela esan dezake norbaitek, han gutxiago direnez errazago egiten dutela prozesu guztia. Baina hori ez da traba, desberdinak egiten gaituena ez da biztanle kopurua, desberdin egiten gaituena herri horiek aurrekontu parte-hartzaileak apustu estrategiko moduan hartu dituztela da, eta bitartean Durangon, herritarren parte-hartzeaz hauteskunde prozesutik hauteskunde prozesuetara baino gogoratzen ez garela ematen du.

Badakigu ez dela erraza parte-hartze prozesuak aurrera eramatea, baina, aipatu bezala, argi daukagu ez dela ezinezkoa, baizik eta guztiz bideragarria. Lanerako prest gaude zentzu honetan eta edonorekin; oinarritzko arau bakarra jartzen dugu: herritarrek izatea erabakia. Orain arteko modeloa ez da batere herritarra, guztiz elitista da, elite politikoa delako 28.500 biztanlearen erabakiak hartzen dituen. Ordenantza fiskal hauek ez dira errealak, ez datoz bat herritarren beharrekin: ordenantza fiskalak garatzeko momentuan ez delako herriarekin kontatu.


Herritarrek ordenantza fiskal eta aurrekontuan inplikatu behar ditugu, beraien etorkizuna erabakitzen ari garelako. Euren etorkizuna baldintzatu behar dugunez, eurak dira

quisiéramos emplazaros a realizar otra reflexión acerca de la participación: participar no es escuchar el monólogo de alguien; no se trata de colocar una copia de los presupuestos o de las ordenanzas fiscales en un panel u realizar ciertas declaraciones en prensa. La participación está ligada a la capacidad de decisión, y si se niega dicha capacidad, las ordenanzas y los presupuestos podrán calificarse de muy diversas maneras, pero nunca serán participativos. Debería ser la ciudadanía quien diera prioridad a un proyecto u otro; debería preguntársele a la ciudadanía, y determinar las ordenanzas fiscales y los presupuestos, mediante su participación y en virtud de su decisión.

En eso se basa la participación, y es totalmente factible, tal y como se demuestra en Otxandio. Alguien puede responder que no son municipios equiparables, por la diferencia en el número de habitantes, y que en Otxandio, al ser un municipio menor, resulta más fácil llevar a cabo este tipo de iniciativas. Pero el número de habitantes no supone un obstáculo; lo que realmente nos hace diferentes no es el número de habitantes, sino el hecho de que en Otxandio se haya optado por la realización de unos presupuestos participativos como apuesta estratégica, mientras que en Durango parece que únicamente nos acordamos de la participación ciudadana en época electoral.

Sabemos que la consecución de procesos participativos no es una tarea fácil, pero tal y como hemos mencionado, sabemos que lejos de ser un hecho imposible, es realmente factible. Estamos dispuestos a trabajar en ello con todos, bajo la única condición de que sean los ciudadanos quienes decidan. El modelo seguido hasta hoy no es en absoluto popular, sino totalmente elitista, puesto que es una élite política la que decide por 28.500 habitantes. Estas ordenanzas fiscales no son reales, no responden a las necesidades de la ciudadanía, ya que a la hora de ejecutarlas no se a contado con ella.

Debemos implicar a la ciudadanía en las ordenanzas fiscales y presupuestos, puesto que es su futuro lo que se está decidiendo. Es su futuro lo que decidimos, y por lo tanto deben ser ellos el motor. Participar no es simplemente escuchar un discurso; participar es tomar deci-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

Ayuntamiento Pleno

Akta

Acta

etorkizunaren motore. Parte-hartzea ez da hitzaldi bat entzutea, erabakiak hartzea baizik. Adibidez badaukagu aurrekontu parte-hartzaile batzuk egiteko txostena eta momentuz ez da gauza handirik egin.

Bukatzeko, esan, ordenantza fiskalak justuak izan behar direla eta justizia sozial horretan gehien daukanak gehien aportatu behar du.

* 5. Alkate Ordea **Diaz Basterra andreak** (**EAJ/PNV**): Esan da hiru urtetan ez ditugula gure ordenantza fiskalen tasak eta zergak igo. Daukagun egoera ez da inoren gustukoa, ez hemen ez beste herri batzuetan. Hartzen diren neurriei dagokionez, esan behar dut ez direla populistak. Tasen jaitsiera aurkeztea bai litzatekeela populista, baina izoztea edo jaistea ez da beti posible. Badakigu %3a igota ere ez garela krisitik aterako, baina hiru urtetan tasak izoztuak izan eta gero, uste dugu, apur bat igotzeko ordua ere heldu zaigula, eta horregatik proposatzen dugu tasak igotzea, beren beregi, KPIren arabera.

Pozten gara Aralar pozik egotea tasak zertxobait igotzearekin, eta espero dugu bere poza nahikoa izatea aldeko botoa emateko. Guk ere espero dugu aurten ordenantza fiskalak onartu ostean, eta alegazioak aurkezteko epearen barruan, Aralar taldea ez etortzea, beti bezala eta azken momentuan, alegazioren batekin.

Populismo hitzarekin jarraituz, PPko Bozemaileak diosku igoeraren aurka daudela, baina hau Durangoko udalean baino ez dute esaten, gainerako udaletan ez dutelako inolako beldurrik tasak eta zergak igotzeko. Suposatzen dut kontrako botoa emango dutela, ondo etorriko zaie argudio hori, lizitoa da, baina gu ez gatoz bat. Bestalde, ikusten dut hainbat diskurtso errepikatu egiten direla, lizitoa da baita ere, bakoitzak bere ideiak dauzka eta gauzak egiteko bere modu propioa, baina besteok ez gara zertan horrekin ados egon behar.


siones. Por ejemplo, contamos con un informe para la ejecución de unos presupuestos participativos, pero por el momento, no se ha realizado gran cosa al respecto.

Quisiera finalizar diciendo que las ordenanzas fiscales deben ser justas y que en base a esa justicia social, es quien más tiene quien más debe aportar.

